



2021UDOS0001

Andoaingo Udala

**Akta:Osoko Udalbatza**  
APARTEKO BILKURA: 2021/01/22

**Acta: Pleno Municipal**  
SESIÓN EXTRAORDINARIA: 22/01/2021

**Lekua: Batzar Aretoa / Lugar: Salón de Plenos**

**Bildutakoak: / Asistentes:**

**Alkatea / La Alcaldesa** Maider Lainez Lazcoz

**Zinegotziak: / Concejales/as:**

**PSE-EE** José Luis Verdasco Gutiérrez

**EAJ-PNV** M<sup>a</sup> Sagrario Ruiz Fernández

**EH-Bildu** Andoni Alvarez Lete

**Elkarrekin Podemos** M<sup>a</sup> Teresa Santana Rubio

Akta Zenbakia	<b>1</b>
Eguna	<b>2021/01/22</b>
Hasiera	<b>9:45</b>
Amaiera	<b>10:00</b>

**Idazkaria:**

María Uriarte Zuricaray

**Kontuhartzailea**

Myriam Lizaso

Arruabarrena

**Interpretaria**

Jon Unanue Lopez

**Bozka bere udal taldeko eledunarengan eskuordetzen dute PSE-EE eta EH Bildu udal taldeetako zinegotziek eta EAJ/PNV udal taldeko kideak M<sup>a</sup> Sagrario Ruiz Fernández zinegotziarengan.**

**PSE-EE**

Ascensión Parrón Peguero

Petra Romero Pozo

Oscar Mendo González

**EAJ/PNV**

Maria Jose Izagirre Iturzaeta

Imanol Goenaga Egibar

**EH Bildu:**

Estibalitz Mujika Tolaretxipi

Jon Zulueta Berastegi

Garazi Usandizaga Zubiria

Julian López Aracama

M<sup>a</sup> Teresa Etxeberria Arteun

Xabier Fondón Pajares

**Gai Zerrenda:**

1. Beterri Buruntza - Toki-garapenaren, ekonomia-sustapenaren eta enpleguaren arloko udal-lankidetzarako 2017ko urtarrilaren 27ko hitzarmena aldatzea eta luzatzea.

**Orden del Día:**

1. Beterri Buruntza – Modificación y prórroga del convenio de cooperación municipal en materia de Desarrollo local, Promoción Económica y Empleo de 27 de enero de 2017.

**Nahikoa quorum dagoenez eta lehendakaria eta idazkaria ere bertan daudenez, bilkura baliozki eratzen da.**

Idazkari andreak aditzera ematen du, udal taldeetako eledunengan eskuordetutako bozken idatziak berak dituela eta espedientera atxikituk direla.

1. **Beterri Buruntza - Toki-garapenaren, ekonomia-sustapenaren eta enpleguaren arloko udal-lankidetzarako 2017ko urtarrilaren 27ko hitzarmena aldatzea eta luzatzea.**



Andoaingo Udala

## Akta:Osoko Udalbatza

APARTEKO BILKURA: 2021/01/22

## Acta: Pleno Municipal

SESIÓN EXTRAORDINARIA: 22/01/2021

Alkate andreak hartu du hitza eta honakoa adierazi du:

“Egun on guztioi eta ongi etorriak izan zaitezte 2021eko urtarrilaren 22an egingo dugun udalbatzarra ez ohiko honetara.

“Buenos días a todos y bienvenidos y bienvenidas al pleno extraordinario que vamos a celebrar hoy 22 de enero de 2021.

“Ez ohiko udalbatzarra da, gai batekin, hain zuzen ere orain Idazkariak aipatuko duena.”

“Aipatzeko batetik, hitzarmenaren modifikazioa eta prorroga onartzera ekartzen dugula, gai hau, dakizuen ez eskualdean tratatu da, azkenean 6 udalak osatutako hitzarmena da eta batez ere, beharra dugu mankomunitatea eratuta ez dagoelako oraindik, orduan hitzarmena luzatzera behartuta gaude, indarrean ditugun programak amaitu ahal izateko, momentuz aurreikusten da honekin programa berriak ez hartzea, baizik eta, duguna amaitzea. Gure nahia da ahalik eta azkarren eta lasterren mankomunitatea eratuta izatea eta horrela mankomunitatea bera aurkeztuko litzateke ba programa berrietara.

“Modifikazioak hauek izango liratezke. Batetik, gehienez lau urteko luzapena izango luke eta, hau, aipatu dudan bezala, indarrean egongo litzateke mankomunitatea osatu bitarte. Bigarrenik, egin beharko kontratazioak eta sinatu beharreko hitzarmena bailarako beste herrien artean burutuko dira eta Andoain kanpo gelditzen da eginkizun hauetan, hori, baita ere, zehaztu egin da eta, hirugarrenik, enplegu batzordetik pasa da eta dakizuen ez, aho batez, onartu egin da.

“Decía que el punto que traemos es la modificación y prórroga del convenio Beterri Buruntza, que es una cuestión que se ha tratado entre los seis municipios que conformamos la comarca y que, el principal objetivo de este convenio, de esta modificación y prórroga es que podamos acabar los proyectos que actualmente están en vigor, pero que, el objetivo es, cuanto antes, de la forma más rápida posible, se cree, cuanto antes, la mancomunidad de Beterri Buruntza y de forma excepcional si hubiera algún proyecto se pudiera aceptar, en el caso de que fuera por unanimidad de los seis municipios, pero no es la intención, la intención es que cuanto antes sea la mancomunidad la que tenga forma jurídica para que pueda aceptar esos compromisos.

“En ese sentido, las modificaciones que incluiría, por un lado, sería tener una duración máxima de cuatro años y, sobre todo, como acabamos de citar, redirigir para que cuanto antes se cree la mancomunidad. Como segundo punto, que todas las contrataciones y convenios que hubiera que firmar para poderlo llevar a cabo el ayuntamiento de Andoain quedaría exento, no participaría. Hasta ahora se han hecho las contrataciones desde el ayuntamiento de Andoain y tercero, como saben, este punto viene ya tratado en la comisión de Empleo, donde se aprobó por unanimidad.

“Ez dakit galderaren bat edo zerbait aipatu nahi duzuen.”

Jarraian, Alvarez jaunak, EH Bildu udal taldeko eledunak hartu du hitza, honakoa esateko:

“Irakurriko dudana da, EH Bilduko sei herrietako ordezkariak adostu dugun testu bat. 2017ko urtarrilaren 27an, Andoain, Astigarraga, Lasarte-Oria, Hernani, Urnieta eta Usurbilgo udalek sinatu genuen lankidetzaren hitzarmena luzatzeko proposamena dugun mahai gainean. Hitzarmen horrekin bide oparoa egin du gu sei herriok garapen sozio-ekonomikoaren arloan. Enplegua, ekintzailetasuna, enpresen lehiakortasuna eta lurralde garapena sustatzeko 30 programatik gora garatu eta harreman sarea aberatsa eraikiz pertsona ekintzaile, enpresa, hezkuntza zentroak eta bestelako eragileekin. Bide horretan, sei herriok eskerrak eman beharrean gaude, batetik, Andoaingo udalari hitzarmenaren kudeaketaren zama handiena bere gain hartu duelako eta bestetik, programa horietan lan egin duten pertsonen, ahalegin itzela eta maila handiko lan teknikoak egin dutelako. Beterri Buruntzako mankomunitatea sortzeko bidean gauden honetan, ezinbestekoa iruditzen zaigu hitzarmena luzatzea, amaitu gabe dauden programak, amaitzen joateko eta mankomunitatea sortu eta operatiboa izan bitartean herritarren beharrei erantzuteko funtsezkoak izan daitezke programa berrien dirulaguntzak eskatzeko.



Andoain Udala

## Akta:Osoko Udalbatza

APARTEKO BILKURA: 2021/01/22

## Acta: Pleno Municipal

SESIÓN EXTRAORDINARIA: 22/01/2021

“Hitzarmenaren baitan, sortu dugun lan dinamikari eustea eta areagotzea inoiz baino beharrezkoagoa da, gaur, pandemiak eragindako krisi ekonomikoaren ondoren modu proaktiboan erantzuteko. Horrek du, erabateko lehentasuna, hori da gure helburu nagusia, betebeharra eta hori lortzeko behar diren tresnak, hitzarmena luzatu, mankomunitatea sortu eta baliabideak jarri behar ditugu.

“Hitzarmena luzatzea behin-behineko irtenbidea da, helburua lehen bait lehen mankomunitatea sortu eta behar dituen baliabidez hornitzea delako. Mankomunitatea behar dugu, eskualde izaera indartzeko eta eskualde gisa pertsonen eta gure eskualdearen garapen sozioekonomikoa sustatzeko.

“Herritarren erreferentzia izango den lankidetzaren esparrua izan behar du, bai eta, beste erakundeen aurrean gure eskualdea ordezkatuko duen solaskidea ere. Horrenbestez, hitzarmena luzatzearekin ados gaude eta gure aldeko botoa izango du.”

Kontuan hartuz, sinatutako “Udal mailako lankidetzaren hitzarmena toki garapenaren sustapen ekonomikoaren eta enpleguaren alorrean” Beterri Buruntza eskualdeko udalen artean 2017.01.27ko datarekin.

Kontuan hartuta, indarrean dagoen Udal Lankidetzaren Hitzarmenaren seigarren estipulazioak, hasiera batean lau urteko iraupena duenak, hau ezartzen duela: hitzarmena indarrean dagoen bitartean eskualdeko garapen agentzia (Mankomunitatea) eratzea adosten bada, hitzarmena amaitutzat emango da eta hitzarmenaren babesean abian jarritako programak, proiektuak eta zerbitzuak aipatutako Mankomunitatera lekualdatzeko mekanismoak ezarriko dira.

Kontuan hartuta, hitzarmenaren hasierako indarraldia 2021eko urtarrilaren 26an amaituko dela, eta, hala ere, Mankomunitatea ez dagoela formalki eratuta, eta, egon izan balitz ere, orain oraindik ez lituzke bere gain hartuko hitzarmena indarrean dagoen bitartean eskualdeko udalerriek abian jarritako programa, proiektu eta zerbitzu guztiak.

Kontuan hartuta, hitzarmenaren bederatzigarren estipulazioak ezartzen duela, hasieran lau urteko indarraldia izan arren, "Beste lau urterako luzatu ahal izango dela, sinatzaileek aho batez hala erabakita".

Kontuan hartuta, agertutako udalerriak bat datozela hitzarmena gehienez ere lau urtez aldatzeko beharrezkin, hargatik eragotzi gabe Mankomunitatea eratu eta beharrezko giza baliabideak eta baliabide materialak eskuratu ondoren, abian dauden programa, proiektu eta zerbitzuak eskualdatzea, eta, gainera, Amankomunazgoak bere gain hartu ahal izateko legezko baldintzak betetzea, udalerriak jakitun baitira diruz lagundutako programa batzuk ez direla Administrazio Publikoaren baimenik gabe eskualdatu ahal izango dira.

Kontuan hartuta, 2020ko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 49. artikulua aukera ematen duela administrazioen arteko hitzarmenak, aipatutakoa bezala, beste lau urtez luzatzeko.

Kontuan hartuta, Udal Kooperazio hitzarmenari atxikituriko Batzorde Kudeatzaileak 2021eko urtarrilaren 14an egindako bilkuran hartutako erabakia aipaturiko Udal mailako Lankidetzaren Hitzarmena aldatu eta luzatzeko gehienez ere 4 urtetarako .

Kontuan izanik, behin-behineko idazkariaren txosten juridikoa 2021.01.18ko data duena.

Ikusirik, Sustapen Ekonomiko, Enplegu eta Gazteria Batzorde Irizpenemaileak 2021eko urtarrilaren 19ko bileran emandako irizpena.

Gaia eztabaidatu ondoren, Alkate andreak, proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzarrak, aho batez, Alkate andreak eta PSE-EE, EAJ/PNV, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, honakoa erabaki du:

1.- Onartzea Toki-garapenaren, ekonomia-sustapenaren eta enpleguaren arloko udal-lankidetzarako 2017ko urtarrilaren 27ko hitzarmena aldatzea eta luzatzea Beterri Buruntza eskualdea osatzen duten udaletxeekin, hau da, Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbil, dokumentuan bertan jasotzen diren baldintzetan.

Hitzarmen horren gehienezko iraupena 4 urtetarako aurrikusten da.



Andoaingo Udala

## Akta:Osoko Udalbatza

APARTEKO BILKURA: 2021/01/22

## Acta: Pleno Municipal

SESIÓN EXTRAORDINARIA: 22/01/2021

2.- Ahalmentzea Maider Lainez Lazcoz andrea, Andoaingo Alkatea, sinatzeko aipatutako lankidetz hitzarmena.

3.- Akordio honen berri Lasarte-Oria, Usurbil, Urnieta, Hernani eta Astigarragako Udalei ematea, jasota gera dadin.

4.-Akordio honen berri udaleko lansail guztiei ematea, jasota gera dadin.

Berriro, Alkate andreak hitza hartu du eta honakoa esan du:

“Ez ohiko udalbatzarra denez, ez dago galde-erregurik. Amaitutzat emango dugu gaurko bilkura. Mila esker guztiei etortzeagatik.

“Decía que como la sesión es extraordinaria, no hay más puntos, tampoco hay ruegos y preguntas, con lo cual daríamos por finalizada la sesión. Muchísimas gracias a todos por venir.”

Eta beste aztergairik ezean, lehendakariak amaitutzat eman du ohiko batzarraldia, 10:00 minutu zirenean. Behin-behineko idazkariak batzarraldiari dagokion agiri hau idatzi eta Alkateak irakurri eta ontzat eman ondoren, biek izenpetu dute, bat etorriz Toki Erakundeen Antolamendu, Jardunbide eta Araubideari buruz indarrean dagoen Erregelamenduaren 110.2 artikuluan agindutakoarekin. Eta horren guztiaren fede, nik, Behin-behineko Idazkaria naizen honek, ematen dut.

O.E. / V.B.

**Alkatea**

**Behin-behineko idazkaria**



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU8fa25d15-89ef-4658-b1fe-380b86e0c191**

Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:  
<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=00910>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=00910>